



Lehiaketaren oinarriak “HAURTXOAREN LEHEN URRATSAK”

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteak (Hirukide), helbide soziala Sofia Erreginaren hiribideko 112. etxabea eta IFK G-01285899 dituenak, antolatu du.

Lehiaketaren helburua eta gaia

“HAURTXOAREN LEHEN URRATSAK” lehiaketaren helburua da aurkezten diren argazkiek etxeko umetxoaren irudiak islatzen lehen egunetan, lehen urratsak emanaz, katuka, anai-arrebekin jolastuz, bakar-bakarrik janez, etab.

Parte-hartzaileak

Lehiaketan Hirukideko edozein familia bazkidek parte har dezake, eta **familia bakoitzak gehienez 3 argazki** aurkeztu ahal izango ditu. Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartze hutsagatik, oinarri hauek eta, lehiaketatik eratorritako edozein erabakiri dagokionez, Hirukideren irizpideak onartzen dituzte.

Formatua

Argazkiak formatu digitalean aurkeztuko dira, koloretan edo zuri-beltzean, .jpg formatuan, eta fitxategiaren tamainak 1.0MB baino handiagoa baina 4MB baino txikiagoa izan beharko du (posta elektronikoz bidaliz gero).

Epea eta bidalketak

Aipatu argazkiak 2020ko uztailaren 1etik irailaren 20ra bidali ahal izango dira. Posta elektronikoz bidaliko dira hirukide@hirukide.com helbidera, argazkien gehieneko tamaina 3MBkoa izanda. Fitxategiak handiagoak izanez gero, alternatiba desberdinak erabili ahal izango dira tamaina handiko artxiboak bidaltzeko (Dropbox, WeTransfer, etab.)

Kasu bietan, ondoko datuak adierazi beharko dira: familiaren izen-abizenak, Bazkidearen zenbakia (2. blokeko, 6 digituak), e-posta eta harremanetarako telefono-zenbakia

Lehiaketa

Argazki guztien artean, epaimahai batek argazki xamur eta originalenak aukeratuko ditu. Horietan, irudien sinpatia, originaltasuna eta kalitatea hartuko dira kontuan, eta epaia irailaren 25ekoa izango da. Lehiaketaren emaitza irailaren 28an jakinaraziko zaie argazki horiek bidali dituzten familiei. Familia irabazleei jakinarazi ondoren, hurrengo asteetan emango dira Sariak.

Familia irabazlea (k) aurkitzen ez badira, astebeteko epean argazki berri bat (k) aukeratuko dira. Bigarren aldi honetan familia saritua aurkituko ez balitz, saria banatu gabe geratuko litzateke.

Sariak

Sariak hartzaindegiko 20 lote dira Eroski Taldearen laguntzari esker.

Irabazleak espresuki onartzen du Hirukidek bere izena eta irudia lehiaketarekin lotutako edozein publizitate edo komunikaziorako erabiltzea, inolako ordainik gabe.

Argazkien erakusketa eta argitalpena

Aurkeztutako argazki guztien jabetza lehiaketaren antolatzaileen eskura igaroko da, eta antolatzaileek eskubidea izango dute euren argitalpen inprimatu edo digitaletan erabiltzeko. Aipatu argazkien argitalpenarekin lotutako eskubide guztiak Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteari, Hirukideri, emango zaizkio, lanaren titulartasuna aipatu eta onartu beharrik gabe. Halaber, Hirukidek lehiaketara aurkeztutako lan guztien edo batzuen erakusketa egitea erabaki ahal izango du.

Hirukidek beretzat gordetzen du edozein unetan lehiaketaren baldintzak aldatzeko eskubidea, baita lehiaketa egin aurretik berau bertan behera uzteko eskubidea ere, betiere bidezko arrazoirik egonez gero.

Oinarrien onarpena

Lehiaketan parte-hartzeak derrigorrez dakar oinarri hauen guztien onarpena.

